


Z.E.R.O.

Governors taldea Arrasaten sortu zen 2006an. Soinu indartsu eta ahaltsuak gustuko dituen taldea da. Governors taldeak musikaren pisua eta trinkotasuna melodien eremura gerturatu ditu. Abestiek bi errail dituzte, bi errail paralelo bide berberera doazenak. Rock bortitzaren melodiazko geltokia dute aterpe, hori da Governors.

Governors taldearen seigarren diskoa Z.E.R.O. (Zikloari Ekin dio Rhinopalpak, Ohartzetako) da. Z.E.R.O. 2017ko abuztu eta irailean grabatu eta nahastu du Haritz Harreguy teknikariak Usurbilgo Higain estudioan. Governors taldeak izugarrizko konfiantza du Jimmy S.A.-rengan eta berriro egin du lan ekoizpean. Masterizazioa Jonan Ordorikak egin du Mamia estudioan. Baina Governors taldeak segitu du bilatzen laguntza gehiago: Aitor Antruejok gitarrak grabatu eta konponketak egin ditu. Koldo Uriartek sintetizadorea, samplerra eta piano konponketak egin ditu. Aritz Navarra koruak. Testuetan Aiert Goenaga, Mikel Etxaburu eta Xabi Igoa daude.

Governors taldearen Z.E.R.O. rock lodi eta boteretsua da, soinua melodien kolpeak atontzen dute, soinua kolpeka dator ametsetatik egunerokotasunera. Governors taldeak ausardia erakusten du abestiz abesti. Indarrak hunkitzea garamatza. Borobil, trinko musikan eta letretan esaten dutena, Xabi Igoak ongi laburtu du "Hezurraren kultura" abestiaren hitzetan: konponbiderik ez dut nahi biderik izan ezean.

GOVERNORS



DIABOLUS

Oso gustukoa du, diskoa irekitzeko auzkezpen-txartel bikaina baita, oldarkorra, iluna eta zuzena; beraz, bideratzaile paregabea gai tristea bat azaltzeko: Elizaren hainbat kidek egindako pederastia kasuak eta txikiei eragindako sexu-abusuak asko dira eta nazkagarriak era berean.

BIZHILIK

Bizhilik abestia maketatik zetorkigun sentsazio onak eskainiz, jotzeko eta abesteko oso alai eta dibertigarria da kantuak fase desberdinak dituelako, estrofa batzuetan ambient kutsua, aurre-leloa epikoa, leloa amorrua eta melodia. Diskoko kanturik osatuen delako uste dut, gainera Aiert Goenagaren hitzek biribildu egingo dute, ezin hobeto datorkio testua musikari.

HARRO

Ahotsaren melodiak erraz agintzen du rockaren grinarekin baina aldi berean dibertigarria jotzeko eta itsaskorra. Zuzenean oso gustura joko dugun abestia da erritmoak horretara eramaten zaituelako.

INOR EZ

Liluratuta naukan abesti honek afinazio baxuagoa du. Abestiaren leloa atera zitzaidan tristezia ageriago egoten den horietako egun batean, beste zatiak segituan etorri zitzaizkidan burura. Letra idazteko gai berezi bat hartu nuen kontuan, berezia eta sentikorra.

Emakume askok jasaten duten dramari buruz doa, emakumeen bizitza askok ikusi nahi ez duten kartzela bilakatzeko da uneoro.

1937

Indartzar izugarria duen abesti da, metal kutsu handiena duena dela esan daiteke, iluntasuna nabarmen-tzeko afinazio baxuekin egin dugu lan eta gero ireki lelo epiko batekin. Erdiko zatiak erakartzen nau bereziki, une itogarri eta progresiboak nahasten ditugu konpas desberdin eta geruzak batzen dizkiogu intentsitatearekin batera azken leloraino. Aiert Goenagaren beste letra zoragarri bat du, Euskal Herriko hainbat herri eta hirietan faxisten bonbardaketaren gainean doa. Hitz gordin eta gogorak, musikaren antzera.

HEZURRAREN KULTURA

Orain artekoarekin aldentuta, erabat desberdina atera zaigun abestia da. Pianoaren akorde xumeak izan ziren hasieran baina gero Koldo Uriartek konpondu eta hobetu zituen. Ahotsak pianoaren eta oinarrien laguntza baino ez du, gero taldearekin eztanda egiteko Koldok osatutako orkestra konponketekin bukatzeko. Uste dugu abesti berezi horietakoa izango dela.

X & Y

Tempo markatua du eta lelo gustagarria zuzenekotan jendeak abesteko. Ander Zubillagak egindako gitarrak soloak txundituta nauka. Badakizu zertaz doan letraren lehen esalditik, bakoitzak asma dezala hor dagoena entzun ondoren.

AMETS EHIZTARIAK

Diskoaren ezaugarri nagusietatik ateratzen den beste abestietako bat da. Aitor Antruejok egindako gitarraren konponketaren melodiak nabardurak ditu diskoko beste abestiekin konparatu ondoren. Aiert Goenagak ideia bitxia izan zuen letra honen eta hurrengoaren inguruan. Goenagak gizartean zabaldua dagoen arazo baten A eta B aldeak idatzi ditu.

AMETS HIPOXIKOAK

Azkarra eta zuzena da. Riff eta tempo setatiak ditu pasarte ilunekin batera. Zuzenean jotzea dibertigarria izango zaigu. Letra aurreko kantuaren ifrentzua da, B aldea. Kontzeptu bat bi abestientzat.

KONTRA

Diskoa bukatzeko modu egokia zela pentsatu genuen. Betiko Governors taldearen leloak, riff-ak eta tempoak ditu. Gero arte esateko balio digu. Mikel Etxaburu idazlea batu zaigu berriro letra egiteko eta plazera da guretzat.

Jsang: ahotsa

Jorge: baxua

Ander: gitarra

Helay: bateria

Aitor: gitarra

ritxi aizpuru + governors (2017ko azaroaren 8a)

MANAGEMENT: 659 975 820

baga  **biga**

MUSIKA IDEIAK



Tel. 618 072 076-26 / www.baga-biga.eus / info@baga-biga.eus
221-P.K. 48100 Murguia (Bizkaia)

